# BAT EGIN ONDARE

*batekin*



# AURKIBIDEA


1

GAKOAK

1.1 Kuotak
1.2 Abonuak berritzea
1.3 Bertaratzea saritu egingo da
1.4 Lagatze-sistema
1.5 Emakumeen taldea eta Eibar B barne

2

2025EKO KUOTAK

2.1 Prezioen taula kategorien eta eremuen arabera
2.2. Mapa

4

EGUTEGIA

6

ABANTAILAK

7

EMAKUMEEN TALDEAREN ETA EIBAR B TALDEAREN ABONUA

3

ABONUAK BERRITZEA

3.1 Nola berritu zure abonua
3.2 Eserleku-aldaketak
3.3 Deskontu sozialaren eskaera
3.4 Zatitu zure kuota interesik gabe

5

BERTARATZEA ETA ESERLEKUA LAGATZEA

8

OHIKO GALDERAK

9

HARREMANETARAKO



# 1. GAKOAK

## 1.1

### KUOTAK

2025. urterako iazko kuota berak mantentzen dira.

Kategoria eta eremuen araberako tarifak, abonatuak berritzeko azken ekitaldietan aplikatuak, mantendu egiten dira.

## 1.2

### BERRITZEA

Abonuak automatikoki berrituko dira, eta urtarrilaren 9an abonatu guztien kuotak banku-helbideratze bidez kargatuko dira.

Berritzea nahi ez duten abonatuek aldez aurretik jakinarazi ahal izango diote klubari.

## 1.3

### BERTARATZEA SARITU EGINGO DA

Berreskuratu egingo da **bertaratzearekin eta 2025. urtean jokatuko diren partidetan abonatuek egiten dituzten kluberako lagatzeekin lotutako** kuota-sistema.

Neurri honen helburua Ipuruako harmailak betetzen saiatzea da. Zelaia betetzea funtsezkoa da taldeak, zalegoak bultzatuta, Ipurua gotorleku bihur dezan.

Zalegoa da gure taldeen ardatza, eta garrantzitsua da ahalik eta zaletu gehien izatea. Gainera, erakundeak jendartean orokorki saltzeko duen sarrera kopurua murriztu egin da abonatu kopuru handia dela medio. Klubak neurri honekin duen helburua da ez dadila txartel bakar bat ere geratu erabili gabe.

## 1.4

### LAGATZE-SISTEMA

Kuota-sistemaren barruan kontuan izango da eserlekua klubari lagatzea, abonatuak partidara bertaratu ezin duenean.

Lagatze hori abonatuaren atari pribatutik edo telefonoz egin ahal izango da. Aukera hori partida hasi baino 24 ordu lehenagora arte gaituko da, eta berreskuratzeko aukera izango da, betiere, eserlekua jadanik saldu ez bada.

Klubari eserlekua lagatzea bertaratze modura zenbatuko da, sarrera saldu zein ez saldu. Salduz gero, abonatuari ez zaio zenbatekorik itzuliko.

## 1.5

### EMAKUMEEN TALDEA ETA EIBAR B BARNE

Abonuaren barruan daude LigaF ligako emakumeen lehen taldeak Ipuruan etxeko talde gisa jokatzen dituen partidak. Halaber, abonuan sartzen da Eibar B taldeak, Bigarren Federazio mailan dagoenak, Unben jokatzen dituen partidetarako sarrera.

# 2.

# 2025eko KUOTAK

Eibar Kirol Elkarteak 2024ko kuotak mantenduko ditu 2025. urteari begira. Horri dagokionez, abonatuek ez dute inolako aldaketarik nabarituko, ezta igoerarik ere, beren urteko kuotetan.

**Testuinguru horretan, prezioak azken lau urteetako berdinak izango dira.**

## PREZIOEN TAULA KATEGORIEN ETA EREMUEN ARABERA

| Maila | Eremua | Kuota |
|---|---|---|
| HELDUA<br>23-64 urte bitartekoak | ERDIALDEA | 360 € |
| | A EREMUA | 320 € |
| | B EREMUA | 270 € |
| | HONDOAK | 270 € |
| HOBARITUA<br>· 65 urte baino gehiagokoak<br>· Deskontu sozialarekin | ERDIALDEA | 235 € |
| | A EREMUA | 185 € |
| | B EREMUA | 130 € |
| | HONDOAK | 130 € |
| GAZTEAK<br>13-22 urte bitartean | ERDIALDEA | 240 € |
| | A EREMUA | 205 € |
| | B EREMUA | 145 € |
| | HONDOAK | 145 € |
| HAURRAK<br>0-12 urte bitartean | ERDIALDEA | 160 € |
| | A EREMUA | 125 € |
| | B EREMUA | 65 € |
| | HONDOAK | 65 € |
| FAMILIA-HARMAILA<br>11-12 Ateak | Heldu 1 + Haur 1 | 305 € |
| | Heldu 1 + 2 Haur | 340 € |
| | 2 Heldu + Haur 1 | 545 € |
| | 2 Heldu + 2 Haur | 610 € |

*Kategoría bakoitza esleitzeko, adina betetzen den urtea hartuko da kontuan.

## MAPA


1
2
3
1-16
17-49
50-86
87 99
100 126
127 134
TRIBUNA ESTE
195 223
163 194
136 162
THE CLUB
99-135
72-98
40-71
1-39
TRIBUNA NORTE
1
15
14
12
1-24
25-58
59-81
82-129
PALCO
130 152
153-187
188-220
ZONA PREMIUM
TRIBUNA PRINCIPAL
Tunel Vest.
SDEIBAR
4
5
6
7
8
TRIBUNA OESTE
135 155
119 134
86 118
49 85
32 48
18 31
1-17
11
10
9


ESKOZIA LA BRAVA
ESKOZIA LA BRAVA
ESKOZIA LA BRAVA
S.D. EIBAR
AVIA
ESKOZIA LA BRA

# 3.

# ABONAK **BERRITZEA**

## 3.1

### NOLA BERRITU ZURE ABONUA

Abonuak automatikoki berrituko dira, eta urtarrilaren 9an abonatu guztien kuotak banku-helbideratze bidez kargatuko dira. Kasu bakoitzean, eta zatiketa motaren arabera, dagokion zatia kobratuko da.

**Beren txartela berritu nahi ez duten abonatuek, aldez aurretik klubari jakinarazi behar diote helbide elektronikoz (socios@sdeibar.com) edo presentziazko moduan Orsaixanen.**

## 3.2

### ESERLEKU-ALDAKETAK

Klubak, urte amaieran, eta ezohiko moduan, eserleku-aldaketa egiteko aukera eskaintzen du. Behin kirol denboraldia amaituta, eserleku-aldaketak egiteko epe bat irekiko da berriro.

Abenduaren 23an eta 24an 1, 2 eta 3 lerroetako abonatuek eserleku-aldaketa egiteko lehentasuna izango dute. Halaber, lehentasun hori mantentzen da familia multzokatu nahi duten abonatuentzat (abonatua den haur bat tarteko).

**Abenduaren 26an, 27an, 30ean eta 31n, eta urtarrilaren 2an eta 3an, oro har, abonatu guztientzat eserleku-aldaketa egiteko epea gaituko da.**

**Birkokatzeak ailegaera-hurrenkeraren arabera artatuko dira, Orsaixanen soilik, eta eserlekua aldatu nahi duten guztien txartelak aurkeztu beharko dira.**

## 3.3

### DESKONTU SOZIALAREN ESKAERA

Klubak deskontua ezartzen du langabezia-egoeran edo gizarte-pentsio egoeran dauden eta egoera hori egiaztatzen duten abonatuentzat.

Deskontua abonu HELDUAN aplikatzen da soilik, eta egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, esate baterako, azken hileko lan-ibilbide eguneratua langabezian daudenen kasuan, eta gizarte-pentsioari dagokion edozein egiaztagiri mota.

**Dokumentazioa aurkezteko epea abenduaren 23tik urtarrilaren 8 artekoa da, eta dokumentazioa helbide elektronikoz, socios@sdeibar.com helbidean aurkeztu ahal izango da, edota presentziazko eran, Orsaixanen.**

## 3.4

### ZATITU ZURE KUOTA, INTERESIK GABE

Klubak modu ezberdinak eskaintzen ditu abonuaren ordainketa zatitzeko, interesik gabe

| | |
|---|---|
| ORDAINKETA **BAKARRA** | → **URTARRILA** |
| **3 KUOTEN** ORDAINKETA | → **URTARRILA, MARTXOA ETA MAIATZA** (100 €tik gorako abonuak) |
| **5 KUOTEN** ORDAINKETA | → **URTARRILA, OTSAILA, MARTXOA, APIRILA ETA MAIATZA** (300 €tik gorako abonuak) |

**Zatitzea eskatzeko epea abenduaren 23tik urtarrilaren 8 artekoa da, eta helbide elektronikoz, socios@sdeibar.com helbidean, edota presentziazko eran, Orsaixanen, egin ahal izango da.**


hummel
SDEIBAR
smartlog

# 4. KANPAINAREN EGUTEGIA

## Abenduak 24

| ASTL | ASTR | ASTZ | OSTG | OSTR | LAR | IGA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | **20** | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

## Urtarrilak 25

| ASTL | ASTR | ASTZ | OSTG | OSTR | LAR | IGA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**Abenduak 20**
Kanpaina abiatzea

**Abenduak 21**
21.J - SD EIBAR – GRANADA CF

**Abenduak 23 - Urtarrilak 8**
- Deskontu soziala eskuratzeko dokumentazioa aurkezteko epea.
- Ordainketa zatitzea eskatzeko epea.

**Abenduak 23 eta 24**
1-2-3 lerroetako eserleku-aldaketak eta adin txikikoen multzokatzea.

**Abenduak 26, 27, 30, 31, eta urtarrilak 2 eta 3**
Eserleku-aldaketa egiteko epea (abonu guztiak).

**Urtarrilak 9**
Banku-helbideratzeak.






# 5.1

## ZER ULERTZEN DA BERTARATZE MODURA?

Eibar Kirol Elkarteak pertsona abonatu baten bertaratzea zenbatetsi dezan, hiru inguruabar hauetakoren bat gertatu beharko da:

- **Abonatua Ipuruara bertaratzea.**
- **Abonatuak bere txartela beste pertsona bati lagatzea, eta pertsona hori Ipuruara bertaratzea.**
- **Abonatuak bere eserlekua Eibar Kirol Elkarteari lagatzea.**

# 5.2

## ZENBAT DA PARTIDEN % 50 ETA % 90 EDO GEHIAGO?

Klubak, 2025. urte naturalaren amaieran, urtean kontuan izateko partida kopuru zehatza argitaratu eta jakinaraziko du.

Urteko kirol egutegi osoa ezagutzen duenean egingo du hori. Egutegi hori aldatu egin daiteke 2025ean gizonezkoen lehen taldeak jokatu ditzakeen lehiaketa ezberdinen zein Kopako lehiaketaren arabera.

# 5.3

## NOLA EGIN LAGATZEA?

Klubari lagatzea Abonatuek hainbat bide dituzte klubari eserlekua lagatzeko, partida hasi baino 24 ordu lehenagora arte, eta berreskuratzeko aukera izango da, betiere, eserlekua jadanik saldu ez bada. Klubari lagatzea bertaratze modura zenbatuko da, sarrera saldu zein ez saldu; era berean, salmenta egiten bada, ez da inolako zenbatekorik itzuliko. Klubari lagatzeko atari pribatua erabil daiteke, edo telefonoz egin daiteke.

# 5.
# BERTARATZEA **SARITU** EGINGO DA

2026. urtean Eibar Kirol Elkarteak % 10eko igoera aplikatuko du kuota guztietan. Tarifen igoera estadiora egindako bertaratzeekin lotuta egongo da, partida guztietara bertaratzen diren abonatuak murriztuz.

Eibar Kirol Elkarteak berreskuratu egingo du **bertaratzearekin eta 2025. urtean jokatuko diren partidetan abonatuek egiten dituzten kluberako lagatzeekin lotutako** kuota-sistema.

2025eko urtarriletik aurrera, EIBAR KE abonatuen bertaratzeak eta lagatzeak banan-banan zenbatzen hasiko da, Ipuruan beren eserlekua hartzen dutenena edo, beren eserlekuan egongo ez direlako, hala badagokio, beren eserlekua klubari lagatzen diotenena.

**2026**

↑ **10%**

ASISTENTZIEN ARABERAKO TARIDA IGOERA

Abonatua 2025. urteko partiden **% 90etan edo gehiagoan** bertaratzen bada, edo bere eserlekua lagatzen badu, % 10eko deskontua izango du, hasiera batean, 2026rako programatutako urteko igoerari kenduko zaiona. Horrela, portzentaje horretan bertaratzen diren pertsonek azken urteetatik indarrean den kuotan ez dute aldaketarik izango.

**+90%** BERTARATUZ EDO ESERLEKUA LAGATUZ = **10%** DESKONTUA 2026-AN

Abonatua 2025. urteko partiden **% 50ean edo gehiagoan** bertaratzen bada, edo bere eserlekua lagatzen badu, % 5eko deskontua izango du.

**+50%** BERTARATUZ EDO ESERLEKUA LAGATUZ = **5%** DESKONTUA 2026-AN

Abonatua 2025. urteko partiden **gutxienez % 50ean** bertaratzen ez bada, edo bere eserlekua lagatzen ez badu, ez da inolako deskonturik aplikatuko 2026an indarrean sartuko den % 10eko igoera horretan.

**-50%** BERTARATUZ EDO ESERLEKUA LAGATUZ = **0%** DESKONTUA 2026-AN


LaLiga

# 6. ABANTAILAK

1

GIZONEZKOEN LEHEN TALDEAK IPURUAN JOKATZEN DITUEN LIGAKO PARTIDAK.

2

EMAKUMEEN LEHEN TALDEAK IPURUAN JOKATZEN DITUEN PARTIDAK.

3

DESKONTUAK IPURUAN KOKATZEKO PARTIDETARAKO SARRERETAN

4

ETXEKO ZEIN KANPOKO MODURA SARRERAK EROSTEKO LEHENTASUNA ESKARI HANDIKO PARTIDETAN

5

DOAKO SARBIDEA OINARRIZKO FUTBOLERA (HARROBIA BARNE), UNBEN ETA KIROL HIRI BERRIAN JOKATZEN DIREN PARTIDETAN.

6

% 10EKO DESKONTUA LEHEN ETA BIGARREN EKIPAMENDUAK EROSTEAN ORSAIXANEN

7

DESKONTUAK IPURUA TOUR ETA MUSEOAN EGINDAKO BISITA GIDATUETAN

8

ARGAZKIA HASIERAKO HAMAIKAKOAREKIN 0-13 URTE BITARTEKO ABONATU DIREN HAURRENTZAT

9

ZOZKETAK ETA ESPERIENTZIA ESKLUSIBOAK.


Liga F

# 7. EMAKUMEEN TALDEAREN ABONUA

## EMAKUMEZKOEN LEHEN TALDEAREN PARTIDETARAKO SARRERAK

Halaber, abonua emakumeen gure lehen taldeak etxeko talde gisa jokatzen dituen partidetarako soilik egiteko aukera dago:

Emakumeen talderako bi abonu kategoria daude, adinaren arabera:

| Maila | Kuota |
|---|---|
| OROKORRA | 60€ |
| HAURRAK (1-12) | 30€ |

Emakumeen talderako abonuaren indarraldia urtebetekoa da, eta abonua urtearen amaieran berrituko da.

1 **Emakumeen taldearen abonuaren titular izateak harmailetara sartzeko eskubidea ematen du. Ez da eserleku jakin bat esleitzen.**

2 **Estadiora sartzeko, ezinbestekoa da abonua fisikoki aurkeztea. Ez da argazki edota fotokopiekin sartzea baimenduko.**

3 **Zure abonua lortzeko, ohiko ordutegian Orsaixanera, Abonatuaren Arretarako Espaziora eta Ipuruako Dendara, bertara zaitezke.**

# 7.1

## NOLA BERRITU?

Abonuak automatikoki berrituko dira. Kluba abonatuekin harremanetan jarriko da banku-kontuko datuak eskatzeko, eta urtarrilaren 9an kuotak kargatuko zaizkie abonatu guztiei banku-helbideratze.

# 8.

# OHIKO GALDERAK

1

### ABONATU-TXARTELA GALDU DUT, LAPURTU EGIN DIDATE, EDO EZ DUT AURKITZEN. ZER EGIN BEHAR DUT?

Abonuaren titularra klubeko bulegoetara bertaratu behar da bere NAN agiriarekin bikoizketa bat lortzeko. Galdu egin delako bada, bikoizketak 5 euroko kostua izango du. Lapurreta izan bada, kopia bat emango da kosturik gabe, betiere, salaketaren kopia aurkezten bada.

2

### PARTIDA HASTERA DOA ETA EZ DUT NIRE ABONATU-TXARTELA AURKITZEN.

Abonatuaren arretarako bulegora bertaratu behar duzu Orsaixanen. Bertan identifikatu eta zure txartelarekin bat datorren sarrera lortuko duzu, zure eserlekura ailegatu ahal zaitezen.

3

### ZER KUDEAKETA EGIN DITZAKET ABONATUAREN ATARIAN?

Abonatuaren atari pribatuan (abonados.sdeibar.com) hainbat kudeaketa eta kontsulta egiteko aukera izango duzu. Halaber, aukera izango duzu zure datu pertsonalak eta harremanetarako datuak aldatzeko, zure abonua berritzeko, zure eserlekua klubari lagatzeko, deskontudun lehentasunezko sarrerak erosteko, eta zure bertaratze edota lagatzeak behatzeko.

4

### NOLA LORTUKO DUT ABONATUAREN ATARIAN SARTZEKO NIRE PIN ZENBAKIA?

Saio-hasieraren pantailan (abonados.sdeibar.com) zure PIN zenbakia lortzeko jarraibideak aurkituko dituzu. Zenbaki hori zure jaiotze-datarekin lotutako zenbakiekin dago osatuta.

5

### ZER KUDEAKETA EGIN DITZAKET APLIKAZIOTIK ABONATU GISA?

Eibar Kirol Elkartearen aplikazioa hazten ari da. Gaur egun, zure abonua deskargatu dezakezu QR formatuan eta zure gailu mugikorreko billete-zorroan (wallet) gorde dezakezu. Horrela, txartel fisikoa izanda bezain modu baliozkoan sartu ahal izango zara estadiora.

6

### SAR NAITEKE ESTADIORA NIRE TXARTEL FISIKOKO ARGAZKIAREKIN?

Ez. Argazkiak (zein fotokopiak) ez daude baimenduta baliozko sarbide-dokumentu gisa. Txartel fisikoa erabili behar da, edo halakorik izan ezean, abonu digital ofiziala, QR formatuan.

7

### SAR NAITEKE ESTADIORA HAURREN TXARTEL BATEKIN, 13 URTE BAINO GEHIAGO BADITUT?

Haurren txartela adin horretatik gorako pertsonek erabili ahal izango dute, betiere, klubak horrela iragarri badu. Normalean, partida gaueko ordutegian edo aste barruan jokatzen denean, haurren txartela erabiltzea baimentzen da.

8

### MUGIKORTASUN URRIA DUTEN PERTSONENTZAKO ABONUAK.

Mugikortasun urria duten pertsonentzako eserlekuetan abonuak eskuratu daitezke soilik berariazko eskaera egiten bada. Horretarako, harremanetan jarri behar da honako helbide honetan: socios@sdeibar.com. Mugikortasun urria duten pertsonentzako eserlekuak Harmaila Nagusiko 12. lerroan kokatzen dira.

### ATAL HONETAN EBAZTEN EZ DIREN BESTELAKO ZALANTZAK DITUT

Jarri gurekin harremanetan azalpenak posta elektronikoz bidaliz **socios@sdeibar.com** helbidera, eta zalantzak lehenbailehen ebazten saiatuko gara.

# 9. HARREMANETARAKO

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

## ABONATUAREN ARRETARAKO BULEGOA

**Presentziazko ordutegia:**
astelehenetik ostiralera, 09:30-13:30 bitartean eta 15:30 eta 19:00 bitartean.

*Ipuruan partidarik ez dagoen jardunalditan, ostiraleko ordutegia 09:30-13:30 bitartekoa da.

**Kokapena:**
Orsaixan denda. Ipuruako Estadioko 1 eta 2 ateen artean.

**Telefono-zenbakia:** 943 20 18 31 (1 hedadura)

**Helbide elektronikoa:** socios@sdeibar.com

## ORDUTEGIA PARTIDA-EGUNEZ

Abonatuaren arretarako Bulegoa partida hasi baino 2 ordu lehenago irekitzen da, partida hasi arte.
Estadioko ateak partida hasi baino ordubete (ordu 1) lehenago irekitzen dira.



SD EIBAR